



LIBURU ELEKTRIKOEN IRAKURGAILUEN MAILEGUA **ESKATZEKO ARAUDIA**

Udal Bibliotekak liburu elektronikoaren irakurgailuak (eReader-ak) jartzen ditu erabiltzaileen esku, hauek maileguan eramateko. Sei irakurgailu dira liburuak *epub* formatean irakurtzeko.

ERABILTZAILEAK

- Hemezortzi urtetik gorakoa izatea eta EIPSKo (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko) txartela izatea.
- Erabiltzaileak informazio mahaian eskatuko du zerbitzua; bertan zerbitzuaren inguruko nondik norakoak azalduko zaizkie. Era berean, erabilera arauak onartzen dituzten dokumentua onartuko eta sinatuko dute.

ERABILERA ARAUAK

- Erabiltzaile bakoitzeko gailu bakarra mailegatuko da; beraz, dagokion bateriak kargagailuarekin eta erabilera gidarekin eskainiko da.
- Erabiltzailea izango da gailuaren eta bere osagarri guztien arduraduna maileguan duen bitartean. Gailuaren mailegua eskualdaezina da, eta, beraz, ezin izango dio beste pertsona bati utzi.
- Ezingo dira liburu elektronikoaren aplikazioak eta osagaiak aldatu. Arau hori bete ezean, ezin izango da mailegu zerbitzua bi hilabetetan erabili.
- Gailurako liburuak eLiburutegia plataformatik jaitsiko dira. Lan hori erabiltzaileak egin dezake bere etxean edota liburutegian egiteko eskatu.
- Irakurgailua galtzen edota puskatzen badu, erabiltzailea behartuta egongo da ezaugarri berdineko beste gailu batekin ordezkatzera.
- Gailuan funtzionamendu desegokia somatuz gero, lehenbaitlehen jakinarazi beharko zaie liburutegiko langileei.

MAILEGU BALDINTZAK

- Mailegua hilabetekoa izango da, gehienez.
- Gailua eta bere osagarriak berandu itzuliz gero, liburutegiko arautegian jasotakoa izango dute kontutan liburutegiko langileei.